

# Bezeroekin Harremanak

Gure enpresatik bezeroengana eskainiko dugun harremana laguntza pertsonala eskainia izango da, hasieratik beraiekin bilduko gera beraien bulegoetan kostuak adosteko eta gure produktuak auto modelo ezberdinetara moldatzeko.

Gure enpresa eta Volkswagen taldearen artean egindako bileretan gure konpresoreak nolakoak izango diren adostu eta diseinatu egingo ditugu. Horrela gure bezeroek produktuekin moldatzeko ez dute arazorik izango eta gure harremana pertsonala bultzatuko denez arazoak erraztasun handiagoz eta azkartasun handiagoz egingo dira.

Bilera pertsonal hauek hilabetero egingo dira beraien bulegoetan, bilera hauetan hitz egingo dena zein arazo aurkitu diren, zein kexa dauden eta zenbat eskakizun behar dituzten izango da. Gainera, auto modelo berri bat ateratzen den bakoitzean bilera berri bat egingo da, auto horretako diseinuan hasieratik gure produktua inkorporatua egon dadin.

Azkenik, enpresa honentzat telefono zenbaki bat erraztuko dugu, edozein ez aurreikusi garrantzitsuenentzat ahalik eta azkarren dena ondo martxan jarraitu dadin eta produktuen salmentak ez atzeratzeko.